

Berriketan



IDOIA NOGALES • Korrikalaria

“Konstantzia eta motibazioa
dira bidelagunik onenak”



ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com
Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

 www.facebook.com/adatsileak
 @adatsileak



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behea. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA



Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com



ARENA BAR

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba



LAMARIANO

Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologoa

Kolegiatu zk. 20.000.975

maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24 Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz



Argazkilaria

Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com
Tel: 685 703 843



AURKIBIDEA



BERRIKETAN 291

2024ko urtarrila

Azaleko irudiaren egilea:
Nerea Bedialauneta Alkorta



10 ALBISTEAK
Webgune berritua
estreinatu du
'Berriketan'
herri aldizkariak




11 ALBISTEAK
23. Korrikak
martxoaren 20an
zeharkatuko ditu
Debako kaleak



12 ELKARRIZKETA
Robotikako doktore
tesiarekin kalifikazio
gorena lortu duen Julen
Urainekkin solasean



22 ELKARRIZKETA
Taldeen ibilbideaz eta
Deban emango duten
kontzertuaz mintzo dira
Abian taldeko kideak



27 ALBISTEAK
Mikel Soto idazle
iruindarraren
proiektuak irabazi du
XVIII. Tene Mujika beka



28 AGENDA
Datozen asteotan
egingo diren jarduerak
eta ekimenak jaso
ditugu atal honetan

Zuhatzza euskara
elkartea

Berriketan

ARGITARATZAILEA
Zuhatzza Euskara Elkarte
HELBIDEA
Iifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)
TELEFONOAK
943 19 13 83 / 632 04 33 22
HEDABIDEAREN E-MAILA
berriketan@zuhatzza.com
ELKARTEAREN E-MAILA
koordinatzailea@zuhatzza.com
ERREDAKZIOA
Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta
eta Alex Turrillas
KOORDINATZAILEA
Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA
Joseba Escudero eta Alex Turrillas
LOGOTIPOAREN DISEINUA
Iñaki Elosua
MAKETAZIOA
Maku Oruezabal
TIRADA
1.400 ale
MAIZTASUNA
Hilabetekaria
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
LEGE GORDAILUA
SS/246/200
ISSN: 2171-7656

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA etaletan adierazitakoan erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatzza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Gutunak



Begiradak irribarre

Igual ez dezu oindik jakin: uztailian, ostiraletan, iturri onduan biltzen gera jende mordoxka. Batzuk bokadilluekin, beste batzuk zerbezakin, beste batzuk helauakin... Batzuk aulkixetan eserita egoten dira, beste batzuk iturriko eskaileretan eta beste batzuk tente. Barriak entzuten dira askotan, tarteka hunkitu ere iten da jendia ta, nolana ere, irribarria izaten da nagusi; irribarriak argitzen du iluntzia.

Ilunabar hoixek ez debe-ta, normalian, beltzetik jotzen; edo bai. Baina uztaileko bigarren ostiraletan, behintzat, iluna argitu iten da pantailan irudi moduan, zure lagun batek indako bideo batekin edo ezagunen batek indako argazki, marrazki edo pinturakin. Zure lehengusinak kantau ingo du, akaso, edo dantzau; eta bizilagunak berak idatzitako poematxo bat irakurriko. Irudigile zein testugile, alkarren lanak partekatuz, harremantxoak sortzen dira horrela. Horixe du BEGIRADAK.

Ederra da jende berrixa ikustia oholtza gainian. Ederra da jende berri horrek esateko daukana ikustia edo entzutia, irudi bidez edo testu bat tarteko. Eta ederra da jende berrixa ezagutzia alkarrekin ikuskizun bat prestatzen dan bitartian. Parte hartu nahi?

Irudi bat sortzeko gogorik baldin badakazu, testu bat idatziko bazenu, dantza iteko prest egongo bazina... esan. Begiradakin irribarria marraztuko dezu.

Telefonoa: 688 66 37 44 | E-posta: euskara@deba.eus
Izena emateko epea: otsailak 9

Amaia Zinkunegi Zipitria

Martxan da Debako Korrika Batzordea

Pare bat hilabete baino ez dira geratzen 23. Korrikari ongiatorria egiteko eta, beste edizio batzuetan egin izan dugun bezala, aurten ere Debako Korrika Batzordea eratu dugu, euskararen aldeko ekimen erraldoiaren nondik norakoak azaldu eta antolakuntza lanetan elkarlana eta herritarren parte-hartzea sustatu nahian.

Urtarrilaren 24an egin genuen lehenengo batzarra eta aurrerantzean beste bilera batzuk egitea aurreikusten dugu. Hortaz, Korrikaren lekukoa eraman nahi baldin baduzu, ekintzaren bat antolatzeko gogoz baldin bazabiltza edota antolakuntzan lan egiteko prest baldin bazaude, hurrengo bileretan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu.

Whatsapp talde bat sortu dugu gure arteko komunikazioa errazte aldera eta bertan zabalduko ditugu deialdiak; interesa duen edonor batu daiteke taldera (labur.eus/debakorrikawhatsapp loturaren bitartez). Bestelako zalantza batzuk argitzeko edo ekarpenak egiteko, jar zaitetz zuzenean gurekin harremanetan. Horretarako, idatzi mezua deba@korrika.eus helbidera edo 688 84 03 08 telefono zenbakira.

Guzti-guztion ekarpena izango da ongi etorria!
Tipi, tapa, tipi, tapa...

Korrika Batzordea





INMA ALBERDI


Ditxosozko pantaila

Gogoko dut etxera iritsi eta film bat ikustea. Oraintxe ailegatu naiz eta hara! Inor ez! Lola gure maskotatxoak bakarrik sofaren jabe eta telebista... libre! Gero eta gehiagotan ari zait hori gertatzen azkenaldian. Non ote daude, bada, gure etxekoak? Begiratzera joan eta... bat mugikorrarekin, bestea tabletarekin, bestea eramangarriarekin... Hau da hau! Denak pantailez inguratuta!

Une horretan, nire gaztetako oroitzapenak etorri zaizkit burura, ez daukatenak zer ikusirik gaurko gizartearekin. Garai hartan zuri-beltzeko telebista genuen, kanal bakarrekoa, gustatu edo ez gustatu ez geneukan besterik, ez genuen denbora gehiegirik galtzen pantaila hari begira; hau horrela, kalean aritzen ginen jolasean lagunekin. 70. hamarkadan Munduko Futbol Txapelketarako ia denok izan genuen koloretako telebista. Ostiraletan gizonak soziedadera afaltzera joaten zirenean, eskaileretako emakumeak etxean *Un, dos, tres* ikusteko elkartzten ziren. Gogoan daukat, era berean, zapatuetan ze ondo pasatzen genuen gazteok *Sesion de tarde* ikusten lagun artean. Noski! Ez zegoen beste aukerarik gure pantaila bakarrean. Astean ikusten genuen pelikula bakarra zen, gauez ez zigutelako lagatzen erronbo bat eta biko pelikulak ikusten. Han joaten ginen amorratuta, haserre ohera... zorioneko pantaila utzita.

Baina beno, utz ditzadan pantailak bakean eta benetan garrantzitsuenari heldu: aisialdia. Azken finean, gure lanorduetatik kanpo denbora librea hartzea da inportantea, ezta? Hori egiten saiatu behar dugu eta, egia esan, gure herrian eskaintza zabala da: musika, dantza, kantua, kirola, eskulanak, antzerkia... denetik, eta gainera jende berriarekin erlazioatzeko aukera aparta! Ez duzue uste?

"Azken finean, gure lanorduetatik kanpo denbora librea hartzea da inportantea, ezta? Hori egiten saiatu behar dugu eta, egia esan, gure herrian eskaintza zabala da"

 LIZ.-ZK.: 3  WiFi
TaxiAlain Deba
www.taxideba.eus
636 135 008
alain@taxideba.eus

 **MAIEDER**
 hortz klinika
 Eider Sampayo
 Maialen Linazasoro
Zarautz
 Kale Nagusia 9-1
 943 13 32 69
 722 81 56 60
dental@maieder.com
www.maieder.com
 Implanteak eta kirurgia
 Periodontzia · Endodontzia
 Estetika eta zuriketak
 Protesiak · Odontopediatria
 Azido hialuronikoa
 Aho-aurrepegi eta ATM alterazioak



1920ko hamarkada Valmar jauregia

Desberdinak dira argazki zahar honek erakusten duen Deba eta orain ezagutzen duguna. Eraldaketa 1960ko hamarkadan hasi zen. Itsasadarraren beste aldean, Agirre edo Valmar jauregia ikus daiteke, hainbat txalupa eta lurrunezko zamaontzi txiki bat ainguratuta dauden tokian. Bere ezkerrean, *Ichasvista* jauregitxo dago, Valmarreko markesaren biloba Leopoldo Fuentes Bustillok eraikia, eta, ezkereraxeago, Santos Enparanzaren etxea. Deigarria da haien atzean azaltzen den paisaia, adin jakin bat dugunok ezagutu genuen baso ederra. Jauregiaren eskuinaldean, 1941eko otsailaren 15eko gauean haizeak eraitsitako eukalipto erraldoi bat nabarmentzen da; Gipuzkoako zuhaitzik handienetakoa izan zela diote.

Alex Turrillas Aranzeta


Informatika
Tresneria
informatikoa

Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
 Maxpe Kalea, 7 - behea | 20820 DEBA
 Tel.: 943 19 17 83
 Faxa: 943 19 18 36
 Mugikorra: 686 939 601
informatikajlc@informatikajlc.com


atari
INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com


ieraenea
ekodenda

"maite ditut nire/gure basterrak"
 Lersundi Kalea 6- 20820 DEBA
 Telf.943 53 95 20- E-mail ieraenea@gmail.com


marruecos
viajes y tours

Neurrira egindako
bidaia Marokora
607 76 11 46
www.viajesytoursmarruecos.com



IGOR LARRAÑAGA

Korrika badator

2024a hasi berria den honetan, bi urtean behin antolatzen den Korrika ere gure artera iritsiko da, negua izan arren udaberria diruditen martxoko egunetan.

Hamaika irakurketa eta helburu izan ditzakeen olatua da Korrika. Azkenaldian nik Korrika nola ikusten dudana adierazten saiatuko naiz.

Gizarte judeokristaua garen aldetik, kontzientziak garbitzeko beharra dugu itsatsia gure hezur-muinetan eta kristautasunak asmatutako penitentziak gure barruan dirau. Hortaz, Korrika euskararen eta euskal kulturaren aurka egindako bekatuak garbitzeko penitentzia modua da. Adibide moduan, azken Euskaraldian *ahobizi* izan eta hirugarren egunetik aurrera lankideekin gazteleraz ibili zinela... Korrika badator. Durangoko Azokara joan eta Pirinioetako egutegi bat baino ez zenuela erosi... Korrika badator. Iturri Ondoko bertso saioa izan eta, bertaratu orde, lagunekin poteoan aldrebestu zinela... Korrika badator!

Baina ez pentsa kilometro guztiak kalitate bera dutenik. Goizaldeko ordu txikietan egiten direnak kalitate handiagokoak dira. Iratzargailua 02:30ean jarri ostean jaiki eta korrika egindako kilometroek bikoitza balio dezakete, baita eremu ez euskaldunetan egiten direnek ere, korrika bi kilometro egiteko kotxean Zarrakazteluraino bi orduko bidaia egin duten horien kasuan, esaterako. Eta Zarrakaztelun goizaldeko ordu txikietan korrika egiten dutenek... horiek bekatuak larrienak ere garbi ditzakete!

Hortaz, badakizue. Norbaitek azken bi urteetan egindako bekatuak birpasatu eta bere bekatuak Deban garbitu nahi baldin baditu, has dadila entrenatzen, aurtengoan Korrika eguerdian pasatuko da eta.

"(...) kristautasunak asmatutako penitentziak gure barruan dirau. Hortaz, Korrika euskararen eta euskal kulturaren aurka egindako bekatuak garbitzeko penitentzia modua da"



ASKETA, S.L.
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095

Denon liburutegia

LIBURUTEGIA DENONTZAT TALDEA

Ipuinak eta ipuinez betetako liburutegia nahi ditugu gure umeentzat, eta umez betetako liburutegia herriarentzat. Jakintza garatu nahi duten herritarren espazioa da liburutegia. Ez da liburuzainarena, ezta erakundeena ere... Bertara joaten diren erabiltzaileena da, komunitatearena, zerbitzua jasotzen duten pertsonena.

Liburutegia ez da liburuen gordailua, Interneterako sarbide puntua edota mailegu zerbitzua soilik. Ondarearen gordailu izan behar du liburutegiak, eta ondarea ez da soilik apaletan pilatzen. Ondarea pertsonen esku dago, erabiltzaileon esku, herritarren esku, eta birsortu egiten da gainera. Bada, liburutegia komunikazio-gunea da; elkarrizketak sortzen diren liburutegia aberatsa da eta hori ez da isiltasun osoarekin lortzen. Honela dio Gonzalo Oyarzún liburuzainak *Liburutegi imajinatua. Komunitateak ereiteko lorategia* liburuan: "Liburuek erabil dezatela espazio osoaren %30, ez gehiago. Eta sortu topaguneak, komunitatea aberasteko jendearen elkarguneak". Liburutegiko erabiltzaileok ez ditugu soilik liburuak behar, ipuinez gozatzeko espazioa behar dugu, guk ere elkargune gisa ulertzen dugu liburutegia. Umeentzako programak, tailerrak, irakurketa taldeak, ipuin kontaketak... eskaintzen dituen liburutegia.

Liburutegiarekiko dugun maitasuna, gure irakurzaletasuna eta liburutegia erabiltzearen plazera erakutsi nahi dizkiegu etxeko txikienei. Izan ere, irakurzaletasuna eta elkarbizitza txikitatik ikasten diren balioak dira, horiek dira etorkizuna, baina egungo liburutegiaren arautegiak hainbat muga ezartzen dizkigu erabiltzaileoi, eta, horrela, hainbat egoera deseroso sortzen dira.

Horregatik eskatzen dugu gure herriko liburutegiak duen arautegia berrikustea eta ondorengo proposamen hau aintzat hartzea:

Batetik, liburutegiko erabiltzaile izateko adin mugarik ez ezartzea. Hau da, 0 urtetik aurrerako umeek ere erabiltzaile izateko aukera izatea, eta hauen liburutegirako sarrera ez debekatzea. Arautegiak dio 2 urtetik aurrerakoek soilik erabil dezaketela liburutegia.

Bestetik, liburutegiaren ordutegia eta erabiltzaileen



"Irakurzaletasuna eta elkarbizitza txikitatik ikasten diren balioak dira, horiek dira etorkizuna, baina egungo liburutegiaren arautegiak hainbat muga ezartzen dizkigu"

ordutegia berbera izatea, adin diskriminaziorik gabe. Alegia, umeek beste erabiltzaileen ordutegi bera izatea. Egun, goizez ezin dira umeak liburutegian egon, eta arratsaldea ere adinen arabera dago banatuta; hortaz, adin-tarte bakoitzak ordutegi bat du. Esaterako, 2-6 urtekoak 16:30etik 17:30era soilik egon daitezke. Honek sortzen duen egoeretako bat da adin tarte desberdinetako anai-arrebak elkarrekin ezin egon izatea liburutegian 17:30etik aurrera. Era berean, hainbat familiak ezin dute 16:30etik 17:30era bitarteko ordutegian bertaratu.

Azkenik, malgutasuna eskatzen dugu haurkotxeei dagokienean. Familiek euren eta umeen beharriengatik, zenbaitetan, liburutegira haurkotxearekin sartzeko beharra izan dezakete. Egoerak askotarikoak izan daitezke (umea lo egon daiteke eta gurasoak aldizkari bat irakurri nahi izatea, haurrak oinez ez jakitea, eta abar) eta, egoera horietan, liburutegian malgutasunez jokatzeko eskatzen dugu, eta haurkotxeei sartzeko aukera, betiere elkarbizitza errespetatuz eta jende pilaketarik eta haurkotxe pilaketarik ez badago.



GOIZANE AIZPURUA

‘Z_eharkat_U’

"Idazten duzun bezala bizi beharko zinateke". Argazkilari italiar bat, irla bat eta ni. 2019ko irailean entzun nuen esaldi hura, liburua idazteko sormen bila Formenterako irla idor bezain oparora abiatu nintzenean. Motxila bizkarrean, koadernoa besapean eta oinutsik.

Orduz geroztik neuk idatzitako testuen hitzetan galtzen naiz, bizitzak zer esan nahi ote didan jakin nahian, nondik eramango nauen, edo nondik eramatea nahiko nukeen; konturatu gabe, aldiro, hizkiekin mapa bat sortzen egongo banintz bezala. Diote idazteko bizi egin behar dela, ondoren, bizitako horri buruz idazteko. Bizitza sentitzeak idaztera garamatzala esango nuke. Diote poetaren begietara harakinaren aiztoa oilasko izter bati hezurra kentzen ari den unea poesia dela. Autopistako ordainlekuan, zure kotxea behar beste hurbildu ez eta tiketaren eta zure atzamarren arteko milimetro hori poesia dela esango nuke.

Begirada al da literarioa? Edo errealtate literario bat gure egunerokotasun bilakaturik? Begiradez ari naizela, badut gogoan bereziki testu bat, azkenengoz idatzi nuena izan zelako agian; bada, 2022ko Begiradak-erako Nora Mugerzak prestatutako zuri-beltzeko bideo eder harentzat idatzi nuen. Izenburua: *Z_eharkat_U*.

Eta halaxe hasten nintzen: "Saldotik harantzago, bada inor urrunago hegan egin nahi izan duenik". Eta halako esaldiekin jarraitzen nion: "Koadroz kanpo dagoena ikustean osatzen da irudia eta orduan ulertzen dugu non gauden gu munduan". Eta azken urteetan nire bizitzak tankera hau du: "Zuhaitzen antzera udazken bakoitzeko hostoak galduko ditugu eta udaberri bakoitzeko loraberrituko gara". Eta, testu hartan bezala, hasi berria den 2024 honi ere halaxe biziko naizela esaten diot: "Itsasoak ezabatuko du oinutsik emandako pauso bakoitza, atzera egin ez dezagun".

"Orduz geroztik neuk idatzitako testuen hitzetan galtzen naiz, bizitzak zer esan nahi ote didan jakin nahian, nondik eramango nauen, edo nondik eramatea nahiko nukeen"

AUKERA
INMOBILIARIA


www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Webgune berritua estreinatu du 'Berriketan' herri komunikabideak



Bailarako euskarazko lau herri komunikabide digitalek (*Berriketan*, *Barren*, *Drogeteniturrri* eta *Plaentxia*) elkarlanean garatzen diharduten prozesuaren fruitua da gailu mugikorrei begira diseinatutako webgune berritua. Elkarlan horri esker, Tokikom euskarazko toki komunikabideen sareko 30 hedabidek baino gehiagok erabiltzen duten plataforma bera erabiliko du Debako agerkari digitalak ere.

Aldatu egin da Interneten nabigatzeko modua. Azken urteotan gero eta gehiago dira albisteak gailu mugikorretatik kontsumitzen dituzten irakurleak eta, hori kontuan hartuta, herritarrek tablet eta sakelako telefonoetatik ere errazago nabigatzeko webgunea estreinatu du *Berriketan*-ek.

Goitik behera eraberritutako atariak lehengo helbide bera (*berriketan.eus*) mantentzen du, baina lehengoa baino bizkorragoa eta txukunagoa da, eta erabiltzeko

Bailarako hedabideen Interneteko jardunean jauzi kualitatiboa ematea da helburua

errazagoa. CodeSyntax enpresa eibartarrak garatu du ataria.

Webgunean sartzeko ohitura duenak laster igarriko ditu albisteen aurkezpenean eta nabigazioan egin diren aldaketak. Besteak beste, herriko kirol taldeen emaitzak eta sailkapenak ikus daitezke orain, eta hondartzako zuzeneko irudiak ikusteko eta eguraldia (mareen taula barne) kontsultatzeko aukera ere badago. Aldi berean, bilaketak egin daitezke eta hemeroteca kontsultatu, baita albisteetan iruzkinak egin ere. *Berriketan*-ek lantzen dituen gaiez gain, eskualdeko eta Tokikomeko beste komunikabideek argitaratzen duten edukia ere eskura egongo da aurrerantzean.

Erreminta bera

Tokikom euskarazko toki komunikabideen sareak garatutako plataforma da ezarri dena. Hala, sare horretako 30 hedabidek baino gehiagok erabiltzen duten plataforma bera erabiliko du Debako agerkari digitalak ere.

Zehazki, Debabarreneko lau euskara elkartek, tartean Debako Zuhatzak, tokiko komunikabideak bailara mailan egituratzearen alde abenduan sinatutako hautu estrategikoaren ondorioz egingako jauzia da. "*Berriketan*-ek eskualdeko euskarazko hedabideekin elkarlanean garatzen diharduen prozesuaren fruitua da eta urrats garrantzitsua suposatuko du bailarako eta Euskal Herriko tokiko komunikabideekiko elkarlanean. Aurrerantzean, bailarako lau agerkari digitalek Tokikomek eskaintzen duen erreminta bera partekatuko dute. Inbertsioa bailarako udal guztien laguntzari esker finantzatu da eta helburua da komunikabideon Interneko jardunean pauso kualitatibo bat ematea".



23. Korrikak martxoaren 20an zeharkatuko ditu Debako kaleak

Bi hilabete baino gutxiago falta dira 23. Korrika Irungo San Juan plazatik abia dadin, eta AEK-k euskararen aldeko ekimen herrikoi jendetsuenaren ibilbidea zehaztu du jada. Aurreratu dutenaren arabera, Korrikaren lekukoa lasterketaren zazpigarren egunean iritsiko da Debara, eskuzesku 1.545 kilometro egin ondoren; ez da Itziartik igaroko oraingoan.

Zehazki, ekimena martxoaren 20an, asteazkenez, pasako da Debatik eta, aurreikusitakoaren arabera, 40 minutu inguruko sartu-irtena egingo du herrian. Mendarotik barrena iritsiko dira korrikalariak gurera, 13:28an, eta zazpi kilometro (1.546-1.552) osatu ondoren, 40 bat minutu beranduago, 14:11 inguruan Mutriku aldera zuzenduko da euskararen aldeko aldarria. Errotazarreko zubian hartuko dute lekukoa mutrikuarrek.

Debako Korrika Batzordeko kideek azaldu dutenez, bestalde, otsailaren 1ean zabalduko dute kilometroak erreserbatzeko epea. Eskaria egiteko interesa dutenek deba@korrika.eus helbide elektronikora idatzi beharko dute.

Zuzen-zuzenean jarraitzeko aukera AEK-k gailu mugikorretarako garatutako doako aplikazioa prestatu du aurten ere; bertan, egitasmoari buruzko jakinarazpen eta jakingarri garrantzitsuenen berri jasotzeko aukera emango du.

"Gutziz itxuraldatuta" datorren aplikazioak atal berriak ditu orain. Besteak beste, lasterketaren martxa "denbora errealean" jarraitzeko aukera ematen du. "Furgonetaren geolokalizazioaren bidez, Korrika aurrerata ala atzeratuta datorren jakin dezakete korrikalariak; une oro egiaztatu ahal izango dute nondik dabilen lasterketa".

2025eko udaberrian egingo da hurrengo Euskaraldia



Laugarren Euskaraldia burubelarri prestatzen hasita daude antolatzaileak eta, iragarri dutenez, data aldaketarekin dator hurrengo hitzordua; orain arte udazkenean egin izan den ariketa soziala udaberrian egingo da, 2025eko maiatzaren 15etik 25era, hain justu.

Data aldatzeko arrazoi berri ere eman dute. Edizio bakoitzaren bukaeran ariketaren alde teknikoak aztertu eta, ondoren, beharrezko moldaketak eta egokitzapenak egiten dituzte, ariketa gero eta eraginkorragoa izan dadin. Bada, hausnarketa horren ondorioz hartu dute erabakia. Goiatz Urkijo koordinatzailearen esanetan, udaberrian jende gehiago ibiltzen da eta bizitasun sozial handiagoa egoten da kalean. "Euskaraldia ariketa soziala den heinean, jendearen arteko interakzioa beharrezkoa da, eta eguraldiak eta aldarteak laguntzen du horretan".

Horrez gain, ariketan parte hartzeko erabiltzen den txapa ere udaberrian errazago ikusiko dela diote: "Txapaezinbesteko elementua da ariketan. Txapak ahalbidetzen du ariketa bera, euskaraz hitz egiteko edo entzuteko jarrera erakusten baitu, eta horrek estres linguistikoa nabarmen murrizten du".

Gainera, Euskaraldia 2025ean eginga, Korrikarekin urtez urte txandakatzen joango da ariketa.

“Robotikak, adimen artifizialarekin batera, guztiz aldatuko du gure gizartea datozen urteotan”

JULEN URAIN • Robotikan doktorea



Robotikaren eta adimen artifizialaren alorrean murgilduta ibili da Julen Urain de Jesus (Deba, 1993) azken urteotan, eta *Deep Generative Models for Motion Planning* izenburuko doktore-tesia defendatu berri du Darmstadtoko unibertsitatean (Hesse, Alemania), kalifikazio gorena lortuta: bikain cum laude. "Oso pozik" dago bost urteotako ahaleginaren emaitzarekin, baita bidean izandako ikaspen prozesuarekin ere.

Julen Urainek ingeniariaritzaren elektroniko gradua ikasi zuen Bilbon, eta gero Bartzelonara joan zen robotika masterra egitera. Hura amaitzean, Eibarko Teknikerren ibilpen urtebetez ikertzaile, baina jakin-minak gidatuta, Tekniker laga eta Frankfurtetik gertu dagoen Darmstadt hirira abiatu zen doktoretza egitera, robotikaren eta adimen artifizialaren arloetan. Horretan jardun du burubelarra azken urteotan, eta egindako lana aitortu diote unibertsitatean; tesiarekin notarik altuena lortu du.

Noiz aurkeztu duzu tesia? Ekitaldi bereziren bat izan duzue?

Bai. Abenduaren 18an aurkeztu nuen, Darmstadtoko unibertsitatean, bizi naizen hirian. Hasteko, 30 minutuan nire lana aurkeztu behar izan nuen, robotikan eta adimen artifizialean adituak diren unibertsitateko lau irakasleen aurrean, eta, ondoren, ordu batez, tesiaren inguruko galderak egin zizkidaten. Unibertsitateko lankideak eta familia ere izan ziren bertan, eta polita izan zen guztiok batera ospatzea.

Zer aztertu duzu urteotan eta zeintzuk dira zure lanean jasotako ondorio aipagarrienak?

Jatorrizko izenburua euskarara itzulita, *Mugimenduak planifikatzeko eta kontrolatzeko eredu sortzaile sakonak*

bezalako zerbait izango litzateke. Doktoretzaren ideia nagusia algoritmoak diseinatzea da; algoritmo horiek robotaren mugimendua definitzen dute, arazo ezberdinen aurrean zer egin behar duen ikasteko eta, horrela, egoera bakoitzean bere eginkizuna bete dezan. Zehazki, helburua da robotaren mugimendua zuzenean programatu ordez, mugimenduak adimen artifizialaren bitartez ikastea, arazoak nola konpondu ditzakeen jakiteko adibideak aztertuz. Mugimenduak planifikatzeko, eredu sortzaileak nola egokitu ditzakegun erakutsi diot robotari. Eta hori da, agian, ondoriorik aipagarriena. Dena den, ez naiz bakarrik aritu. Ikerketan, ikertzaile bakoitzak gauza txikitxo bat egiten dugu eta guztion ekarpenarekin lortu dugu hori guztia.

Zer ekarpen egin ditzake zure tesiak ikerketa munduan? Eta gizartean oro har?

Nire ustez, etorkizuna da. Behar beste datu izanez gero, robotak edozein jokabide ikas dezakeela frogatzen du nire ikerketak, beste hainbat ikerketak egin duten moduan. Hori kontuan izanda, norbaitek robotari janaria prestatzen irakasten badio, robotak janaria prestatzen jakingo du. Norbaitek ohea nola egin erakusten baldin badio, ohea egingo du. Nire ustez, robotikak, adimen artifizialarekin batera, guztiz aldatuko du gure gizartea datozen urteotan.



Julen Urain Darmstadteko unibertsitatean aritu da doktoretza egiten azken bost urteotan.

Harritu zaituen zerbait aurkitu al duzu tesia prestatzen? Ikaspen prozesua izan al da zuretzat ere?

Bai, guztiz, ikaspen handia izan da. Pila bat ikasi dut prozesuan. Azken batean, hori zen nire helburua. Ikasteko gogoak bultzatu ninduen doktoretza egitera. **Azalduko zeniguke, mesedez, zure metodologia? Zenbat denbora eman duzu tesia prestatzen?**

Metodologia bera erabiltzen dut edozein ikerketa egiterakoan. Hasteko, oso ondo zehaztu behar da zein den ikertu nahi dudana gaia: nola egin modelo azkarrago bat, nola ikasi datuetatik... edozer izan daiteke. Ondoren, arazo nagusia zein den hauteman behar da, beste iturri batzuk kontsultatuta. Behin arazo hori detektatuta, hura konpondu dezaketen irtenbideak topatzen saiatzea izaten da hurrengo pausoa. Eta, amaieran, soluzioa programatu eta testatu egin behar da, ondo dabilera egiaztatzeko. Lan handia da, bai. Tesia idazten ez nuen hainbeste denbora pasa, hilabete bat agian, baina ikerketan ordu asko eta asko sartu nituen eta guztira bost urte eman ditut doktoretza egiten.

Zientzia arloan (eta ikerketa munduan) ohikoa izaten da Euskal Herria atzean laga eta atzerrira joatea. Zein da, zure ustez, arrazoia? Edo non dago ezberdintasuna? Nire kasuan, robotikan eminentzia bat zen irakasle batekin ikasi nahi nuen, eta Alemanian zegoen. Azken

“Behar beste datu izanez gero, robotak edozein jokabide ikas dezakeela frogatzen du nire ikerketak, beste hainbat ikerketak egin duten moduan”

finean, zure esparruan miresten dituzun irakasleekin eta taldeekin lan egin nahi duzu. Ziur nago jende asko Euskal Herrira datorrela, bertan daudelako bere arloan oso onak diren irakasleak. Robotikaren kasuan, Alemania, Ameriketako Estatu Batuak eta Txina dira indartsuenak.

Doktore-tesia aurkeztu berritan, zer asmo duzu aurrera begira? Darmstadt jarraituko duzu?

Bertan nago oraindik. Emaztea ere hemen dago doktoretza egiten eta, oraingoan, hark tesia bukatu arte, postdoktore moduan nabil leku berean lanean. Aurrera begira, ba ez dakit... Batzuetan lasaitasuna nahi dut, eta Debara bueltan joatea; eta, beste batzuetan, AEBetara edo beste nonbaitera joateko eta abenturak bizitzeko gogoz izaten naiz... joango gara ikusten.



Zoro Feria euripean, baina giro onean

Ikusi eguneko argazki guztiak ondorengo QR kodea irakurritz:



Landa eremuan garatzen den jardueraren erakusleihu bihurtu zen Deba joan den urtarrilaren 6an. Eguraldi kaskarrak askorik lagundu ez arren, asko izan ziren kalera irten eta azokaren sei guneean atondutako 69 postuetara hurbildu ziren herritarrek.

Euriari eta hotzari aurre eginez, giro ona nagusitu zen azokaren guneean eta kaleetan, eta baserritarrek eta artisauek

ekarritako produktuak ikusi, dastatu eta erosteko aukera egon zen. Bien bitartean, beste behin ere, Kalez Kale Txistulari Taldea, trikitilariak, Musika Eskolako dantzariak eta Musika Banda arduratu ziren goiza girotzeaz.

Bestalde, eguerdi partean ohiko sari banaketa egin zuten. Azokan ikusgai izan ziren uzta eta posturik ederrenak saritu zituzten udaletxe azpian egindako ekitaldian, ekoizleei

aitortza eginez. Epaimahaikideen iritziz, Soraluzeko Arizaga baserriko Ezozi Etxeberriarena izan da aurtengo posturik onena. Horrekin batera, sari gehiago ere izan ziren, bestelako lau lehiaketa ere egin baitziren azokan: baserritarrek landatu eta ekoiztutako fruta eta barazki sariketa, ardi latxen edota Karrantzako ardien esneaz egingandako gazta lehiaketa, eta eskualdeko ezti lehiaketa.

Harrera ona izan du aurten ere bidezko merkataritza bultzatzeko dendak

Urtero Eguberrietan zabaltzen den elkartasun dendako boluntarioek nabarmendu dutenez, aurten ere harrera ona izan du Ostolaza eta Portu kaleen artean irekita egon den dendak. Kooperazio Taldeko kideak "pozik" agertu dira balorazioa egiteko garaian. "Salmentei eustea lortu dugu eta, are gehiago, iaz baino zertxobait gehiago ere saldu dugu".

Esker oneko hitzak dituzte, hortaz, dendara hurbildu eta babesa eman dieten herritarrentzat. "Jende pila bat etorri da zerbait erostera eta eskerrak eman nahi dizkiegu hemendik pasa diren guzti-guztiei. Bildutako diru horri esker, posible izango da martxan ditugun zenbait proiektutara baliabide gehiago bideratzea".

Boluntarioek zehaztu dutenez, salmentekin lortu duten dirua tokian tokiko erakundeekin batera gauzatzen ari diren bi egitasmo bultzatzeko erabiliko dute. "Irabazien zati bat Ukrainara bidaliko dugu, Txernobylgo zentral nuklearraren hondamendiak kalteetako eremuan dagoen Orane herriko eskolara, hain zuzen. Beste zatia, berriz, Maliko Togo eskualdeko Saint Paul eskolarako materiala erosteko izango da".

Gipuzkoako Hondartzen Mahaia bildu da, pelletak kostaldera iristeko mehatxuaren aurrean



Aldundian egindako ezohiko bilkura. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Urtarrilaren 12an bildu zen Gipuzkoako Hondartzen Mahaia, pelletak kostaldera iristeko mehatxuaren aurrean ekintza bateratuak ezartzeko asmoz. Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak eta hondartzak dituzten gainontzeko udalerrietako ordezkari politikoei hartu zuten parte ezohiko bilkuran, eta bertan izan zen Debako alkateorde Jon Riaño ere.

Egungo egoeraren berri eman zieten udal ordezkariak, eta Jasangarritasun Departamenduak jarduera koordinatuaren zirriborroaren nondik norakoak azaldu zituen. Alerta eta abisu-sistema guztiak aktibatu direla jakinarazteaz gain, pelletak iritsiko balira, zein makina erabiliko diren adierazi zieten udal ordezkariak.

Neurri bereziak alerta-fasean

Hala, Portugalgo uretatik datozen pelletak gure kostaldera iristeko arriskua dagoela ikusita, alerta-fasean hartuko diren neurriak ondorengoak izango direla zehaztu zuten: hondartza guztiak egunero zaindu eta ikuskatzea (zaintza-zerbitzua sendotuko da, obra-zuzendaritzako hiru pertsonak eta zuzendaritzako bi teknikaririk parte hartuta); garbiketa-zerbitzua indartzea (hamabost pertsonako garbiketa-ekipo gehigarri bat jarriko da); pellet-laginak biltzea (hondartzen arabera bereizitako eta etiketatutako poltsetan bilduko dira laginak, AZTIrekin koordinatuta, laginak bidaltzeko eta alderatzeko, Galiziatik datozen laginen zain), eta larrialdi-faserako baliabide materialak eskuratzea (100 galbahe eta kubo erosi dira, bai eta ontziak, edukiontzia eta bahegailu trinkoak ere).

Urtarrilaren 30era arte egongo da zabalik Euskal Kostaldeko Geoparkean ikerketa proiektu bat garatzeko eskaera epea

Euskal Kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkeak laguntzen deialdi irekia zabaldu du ikerketa zientifikoa bultzatzen jarraitzeko. Gogorazi dutenez, urtero eskaintzen du Geoparkeko natura- eta kultura-ondareari, eta, bereziki, ondare geologikoari buruzko ikerketa-lanak egiteko laguntza bat. Aurten, geologiaz gain, ekologia, natura gune babestuak, historiaurrea, kultura-ondare ukiezina eta itsas ondarea izango dira lehenetsiko diren gaiak.

Pertsona fisikoek eta juridikoek eska dezakete laguntza eta eskatzaile bakoitzak gehienez ere bi ikerketa proiektu aurkeztu ahal izango ditu. Urtebeteko edo bi urteko iraupeneko proiektuak aurkeztu daitezke eta laguntza gehienez ere 3.500 eurokoa (zergak barne) izango da. Eskabideak 2024ko urtarrilaren 30a baino



Mutrikuko Nautilus, didaktika eta ikerketa gela. GEOPARKEA

lehen aurkeztu behar dira. geoparkea.eus atarian *Zientzia eta Hezkuntza* atalean aurkitzen dira oinarri arautzaileak eta deialdia, *Ikerketa* deritzon azpiatalean.

“Urtez urte lasterketetan parte hartzeko osasuna izatea da lor daitekeen txapelik onena”

IDOIA NOGALES ALBERDI • Korrikalaria



Hezkuntza Saileko Haurreskolak Partzuergoko Ekonomia Zerbitzuko arduraduna da lanbidez, baina ahal duen guztietan zapatilak jantzi eta korrika egitera irteten da Idoia Nogales Alberdi (Deba, 1983). 38 urte ingururekin murgildu zen lasterketen munduan, baina hori ez da oztopo izan bi urte pasatxoan korrikalari onenen artean nabarmentzeko. Berriki, adibidez, bigarren postuan sailkatu da Manuel Mateos Memorialean.

Askok oso kirol sakrifkatua dela badiote ere, korrika egiteak "engantxatu" egiten duela aitortu du Nogalesek. "Kirol guztiek antzeko onurak izaten dituzte, baina niri korrika egiteak ematen didana ez dut beste kirolekin sentitu", azaldu du. Berezi gustuko du lasterka "azkar" egitea eta, hortaz, distantzia motzeko probetan lehiatzen da batik bat. Iaz, adibidez, hoge lasterketa korritu zituen eta, hirutan izan ezik, gainontzeko guztietan podiuma zapaltzea lortu zuen. Bere ibilbideaz eta beste hainbat kontuz galdezka, joan zaio *Berriketan*.

Podiuma zapaltzen ikusi zaitugu behin baino gehiagotan 2023an... Noiztik zabilta mundu honetan murgilduta?

Kirola betidanik gustuko izan dut, baina korrika egiteko zaletasuna duela bi urte pasatxo piztu zitzaidan. Aurrez, Donostian bizi nintzenez, lagunekin korrika egitera irteten nintzen tarteka; lasterketek, ordea, ez zidaten inolako inbidiarik ematen.

Ez baita gauza bera kirola egitea edo lehiatzea, ezta? Nolatan hasi zinen, bada, lasterketetan parte hartzen?

Lasterketetan parte hartzeko mila arrazoï egon

daitezke eta guztiak dira txalotzekoak. Nire kasuan, adibidez, duela bi urte pasatxo, 2021eko irailean, Txingudiko lasterketan parte hartu nuen eta bertan lortutako emaitzarekin eta izandako sentsazio onekin harrিতa geratu nintzen; harrezkero, entrenamenduak era planifikatuan egiteko erabakia hartu nuen eta, egia esan, pila bat gozatzen nabil.

Nolako probak gustatzen zaizkizu?

Zazpi eta hamar kilometro bitarteko lasterketa laburretan aritzen naiz erosoan. Lasterketa motzetan lortzen da abiadura handiena eta, intentsitate handikoak diren arren, horiek dira gehien gustatzen zaizkidanak.

Baduzu etorkizunean distantzia luzeko lasterketetan jarduteko asmorik?

Egia esan, errespetua diet distantzia luzeko lasterketei. Nire ustez, ezinbestekoa da distantzia ezberdinak pausoz pauso eta gertutik ezagutzen joatea. Etorkizun hurbil batean, distantzia laburreko lasterketetako sentsazioak distantzia ertainera eramatea gustatuko litzaidake, baina, oraingoz, ez dut maratoirik prestatzeko asmorik. Dena dela, batek daki!



Nola baloratzen duzu iazko denboraldia?

Egia esan, emaitzak oso onak izan ziren, ez nuen halakorik espero. Hogei lasterketa korritu nituen iaz eta, hirutan izan ezik, gainontzekoetan podiumean sartzea lortu nuen; guztira, 11 garaipen eskuratu nituen. Hala ere, emaitzekin baino gehiago, bizitako esperientziarekin eta bidean egindako lagun guztiakin geratzen naiz. Korrika egiteak, egia esan, gauza on asko ekarri dizkit.

Eta non dago hainbeste lasterketa irabazteko sekretua?

Hemen ez dago sekreturik. Ondo entrenatuz gero, emaitzak lehenago edo beranduago iristen dira. Tartean lesiorik ez dagoenean, konstantzia eta motibazioa dira bidelagunik onenak eta, zalantzarik gabe, gakoa eguneroko entrenamenduetan disfrutatzean datza.

Zein garaipen edo lorpenekin geratzen zara? Zein izan da bereziena zuretzat?

Bat aukeratzekotan, irailean egiten den Ondarru-Lekitto kostaldeko lasterketa aukeratuko nuke; desnibela eta distantzia kontuan izanik, erronka handia izan zen niretzat. Era berean, Azkoitiko herri krosean lortutako garaipena ere oso berezia izan

“Egia esan, errespetua diet distantzia luzeko lasterketei. Nire ustez, ezinbestekoa da distantzia ezberdinak pausoz pauso eta gertutik ezagutzen joatea”

zen. Eta, bestalde, garaipenik erdietsi ez nuen arren, zalantzarik gabe Bilbao Night Marathon-eko hamar kilometroko lasterketan egindako marka pertsonala eta bertan izan nituen sentazioak nabarmenduko nituzke iazko lorpen ederren artean.

Eta gogorrena?

Donostiako Maratoi Erdia, zalantzarik gabe. Lasterketa erdian, bat-batean, kalanbreak izan nituen eta, egia esan, helmugara iristea ez zen batere samurra izan; bizpahiru aldiz erretiratzeokotan ere egon nintzen, baina tira, azkenean, helmugara iritsi nintzen, eta ez da gutxi! Eguraldiak ere ez zuen askorik lagundu



Idoia Nogales, urteotan lortutako txapel batzuekin. ERREDAKZIOA

egun hartan eta giharrei dagokienean asko sufritu nuen lasterketan. Dena den, azkenean oso marka ona egin nuen: 1.29.58.

Norgehiagoka edo proba bat aukeratzekotan, zein gomendatuko zenuke?

Lasterketen munduan hasiberria den bati herri krosak probatzeko esango nioke; Zumaiako Herri Krosa, esaterako. Lasterketa horretan bi distantzia daude aukeran (bost kilometrokoa eta hamarrekkoa) eta, etxetik gertu dagoenez, plan polita egiteko aukera paregabea dela iruditzen zait. Lasterketa homologatu batean marka zehatz bat lortu nahi duen korrikalari bati, aldiz, Bilbao Night Marathon-eko hamar kilometroko lasterketa edo Donostiako Maratoi Erdia gomendatuko nizkioke; biak ala biak desnibel gutxikoak dira.

Lehia maila horri eusteko, zenbat eta nola entrenatzen zara?

Egin nahi ditudan lasterketen egutegia oinarri hartuta, entrenatzaile batek asteko entrenamenduen plangintza bidaltzen dit. Nik, gero, egindako entrenamendu guztien berri ematen diot eta, informazio horrekin, ondorengo plangintzak egokitzen ditu. Orokorrean, astean hiruzpalau korrika saio egiten ditut (serieak, progresiboak, erritmo aldaketak edota jardute lasaiak)

“Hemen ez dago sekreturik. Zalantzarik gabe, gakoa eguneroko entrenamenduetan disfrutatzean datza”

“Maratoi erdiko distantzia ondo prestatzea izango da 2024ko helburu nagusia”

eta, horrekin batera, indarra lantzeko beste saio bat eta mugikortasun eta pliometria saio bat ere egiten ditut. Hori bai, astean, gutxienez, atsedean hartzeko egun bat izaten dut. Udaran, gainera, plangintza hori albo batera uzten dugu hilabetez; atsedena, batez ere, mendian gozatzeko baliatzen dut eta, tarteka, korrika saio lasaiak ere egiten ditut.

Lasterketa aurreko egunetan, ezberdinak izaten al dira entrenamenduak?

Lasterketa asteak guztiz ezberdinak izaten dira; batetik, indar entrenamendua kentzen dugu, eta, bestetik, korrika saioen intentsitatea eta kopurua ere jaitsi egiten da. Aste horretan, serie motzak, mugikortasun saioak eta atsedena izaten dira nagusi. Korrika egiten hasi nintzenetik, gainera, pisua ez galtzeko nutrizionista batekin dihardut eta, ohiko entrenamenduei egokitutako nutrizio plangintzaz gain, lasterketa aurreko egunetarako plangintza zehatzagoa ere bidaltzen dit.

Entrenatzeko orduan, materiala ere garrantzitsua izango da, ezta?

Korrika egiteko material garrantzitsuena zapatilak eta galtzerdiak direla esango nuke. Lasterketetan, adibidez, karbonozko plaka duten zapatilak erabiltzen ditut. Oso erosoak dira eta, batez ere, oso lagungarriak



Korrikalari debarra 2021eko Donostiako Maratoi Erdian parte hartzen. QUIEROMISFOTOS.COM

hankak hurrengo egunean muskularki ondo izateko. Zapatilekin egindako kilometro kopurua ere kontuan hartzea komeni da; bestela, lesioak izateko arriskua handitu egiten da. Bestalde, erlojuen gaia beste mundu bat da, baina, taupadak kontrolatzeko orduan, erloju simple bat nahikoa dela esango nuke. Aipatutako materialaz gain, urtero esfortzu probak egiteak duen garrantzia ere azpimarratu nahiko nuke.

Hasi berri dugu 2024. urtea. Zer erronka jarri dizkiozu zeure buruari?

Aurtengo erronketako bat distantzia laburreko lasterketekin jarraitzea izango da. Iaz, adibidez, hamar kilometroko distantzia homologatuan 40 minututik jaitea nuen helburu eta, 38.40ko denbora eginda, bete nuen ezarritako helburua. Aurten, berriz, iazko marka zertxobait hobetzen saiatuko naiz. Baina 2024ko helburu nagusia maratoi erdiko distantzia ondo prestatzea izango da. Aurten, beharbada, zaila izango da, baina gustatuko litzaidake egunen batean maratoi erdi bat 01.25.00eko denboran egitea.

Urteko egutegi zehatz bat antolatzen duten horietakoa al zara? Baduzu gorriz azpimarratutako hitzorduren bat?

Egutegi itxirik ez dut oraingoz. Hala ere, lasterketa batzuetan egoten saiatzen naiz beti, izan ere, antolakuntza aldetik eta giroagatik zoragarriak

iruditzen zaizkit. Horien artean daude Torre Auzokoa, Ondarru-Lekitto, Berrobikoa, Azkoitikoa, Markina-Xemeingoa, Zumaiaakoa eta, nola ez, Debako Manuel Mateos Memoriale ere. Maratoi erdiei dagokienean, pare bat aukeratu beharko ditut. Ea aurten Donostiako Maratoi Erdian iazko arantzatxoa kendu eta helmugara indartsu iristeko aukerarik dudan.

Zein lasterketatan gustatuko litzaizuke txapela janztea?

Urtez urte lasterketetan parte hartzeko osasuna izatea da lor daitekeen txapelik onena. Baina, bat aukeratzekotan, noizbait herriko Manuel Mateos Memorialean garaipena lortzea oso polita izango litzateke. Hiru aldiz parte hartu dut memorialean eta guztietan bigarren postuan sailkatu naiz.

Amaitzeko, Idoia, zer aholku emango zenioke lasterketen munduan hasi nahi duen bati?

Nik lasterketen munduan orain arte egin dudana ibilbidea laburra da, baina, hala ere, bat nator eskarmentu handiko korrikalariet diotenarekin: hau da, disfrutatzea da gakoa. Gu ez gara kiroletik bizi eta oso ondo dago lasterketak prestatzea, erronkak izatea, markak hobetzen saiatzea... Baina ezin dugu ahaztu zertarako egiten dugun korrika; gozatzeko, alegia.

Debako kondairak, karta-sorta batean jasota

Debako baraja legendarioa izenburupean ikusi du argia, gabon partean, herriko kondairak oinarri hartuta Cardenas Fundazioak kaleratu duen karta-sorta bereziak; *Debako irulea*, *Hiru olatuak*, 'Gau-illa' *Alostorreako kondaira* eta *Irarrazabalgo hormarteratua* elezaharretako irudiak ditu protagonista. Javier de Cardenas Prado Amenoko markesaren proposamena izan da sorkuntzaren abiapuntu eta Jose Ignacio Trekuren ilustrazioak eta Alex Turrillasen azalpen testuak dakartza karta-sortak. Pablo Turrillasena da diseinua eta maketazioa.



Javier de Cardenasen ekimenez ikusi du argia Debako karta-sortak.

Tokiko bilduma eta ondare kulturala aberastera dator *Debako baraja legendarioa*, ziurrenik orain arte gurean ezagutzen ez genuen modu batean. Karta-sorta bat da finean, baina ezohikoa, berezia; jokoan aritzeko balio du eta, aldi berean, lagungarria izan daiteke herriko historia ezagutarazteko, eta interesgarria karten edo bitxikerien bildumak osatzea gustuko duten haientzat ere.

Karta-joko tradizioaletan ohikoak diren paloak, koloreak eta irudiak albo batera lagata, herriko lau elezaharrek lotutako elementuak ditu oinarrian. 42 karta eta lau palo ditu: goruak, arpoiak, dorreak eta kateak (palo bakoitzak hamar karta dauzka, eta gainontzeko biak komodinak dira). Txota, zaldi eta erregeen kartarik ez dago, eta haien ordez kondairretako pertsonaia ezagunak ageri dira.

Protagonista horiek aurkeztearekin batera, palo bakoitzaren sinboloen (eta batekoen) esanahia azaltzen du karta-sortarekin batera argitaratu den liburuxkak. Jose Ignacio Trekurenak dira ilustrazioak, eta Alex Turrillas Aranzeta historiazalearenak, berriz, azalpenak. Diseinuaz eta maketazioaz Pablo Turrillas arduratu da.



Egileek azaldu bezala, lau elezahar daude karta-sortaren oinarrian: *Debako irulea*, *Hiru olatuak*, *'Gau-illa' Alostorreako kondaira* eta *Irarrazabalgo hormarteratua*. Aspaldikoak dira guztiak, batzuk Erdi Arokoak ere bai. Ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi transmititu ziren mendeetan zehar, 1866an Juan Venancio Araquistain idazle debarrak (1830-1906) *Tradiciones vasco-cantabras* liburua kaleratu zuen arte, bertan jaso baitzituen idatziz. Harrezkero, argitalpen eta bertsio ugari plazaratu dira.

Bi zaletasun bat eginda

Cardenas Fundazioari eta bereziki fundazio horretako presidente den Javier de Cardenas Chavarri, Prado Amenoko markesari esker ikusi du argia *Debako baraja legendarioa*-k.

Proiektuan parte hartu duen Alex Turrillasek gogorarazi bezala, De Cardenasek betidanik izan du oso lotura estua Debarekin. Bilbon jaioa da, Madrilen bizi da, eta ohiko

udatiarra da herrian; bera ez ezik, bere familiako beste hainbat kide ere bai. "Duela 150 urte baino gehiago hasi ziren uda bertan igarotzen eta oso harreman estua izan dute beti herriarekin. 1949an, udalak adopziozko seme izendatu zituen Manuel de Cardenas (Javierren aitona) eta bere familia".

Debako Udalak bidelagun izan du Cardenas Fundazioa azken urteotan herrian egindako beste hainbat proiektutan, hala nola *Deba 100 hitzetan* literatur lehiaketan edo kale margo sariketan.

Javier de Cardenas bera karta-jokoaren zalea da. Asescoin Karten Bilduma eta Ikerketarako Espainiako Elkarteko kide da, eta Habanako Karten Museoaren sortzaile. Eta, aldi berean, oso gustuko ditu Debako elezaharrak. Kartak eta kondairak; horra hor, bada, bere bi zaletasunak. Bi afizio horiek uztartuz, berea izan zen karta-sorta egiteko proposamena. Azken emaitza herritarren eskura dago jadanik, 20 euroan.

Elezaharretako protagonistak aurkeztearekin batera, palo bakoitzaren sinboloen esanahia ere azaltzen da liburuxkan

Arkatza eta Masillo liburu-dendetan, eta turismo bulegoan eros daitezke kartak, 20 euroan

“Publikoarekiko gertutasuna transmititzen saiatzen gara beti, eta Kultur Elkartean ere espero dugu horrela izatea”

NAHIA GARAIKOETXEA • Abian taldeko musikaria



Nafarroako Abian taldearen kontzertuarekin ekingo dio urteko egitarauari KulturEkin egitasmoak. Beste talde euskaldun batzuen bertsioak beren kanta propioekin uztartuz, laukoteak emanaldi "lasaia eta goxoa" eskainiko du, formatu akustikoan, urtarrilaren 26an. Hitzordua 20:00etan izango da, Kultur Elkartean. Sarrerak bertan izango dira salgai, baita Internet bidez ere aurrez (labur.eus/kulturabian estekaren bitartez).

Hirukote gisa egin zituzten lehen emanaldiak, baina lau dira gaur egun Abian musika talde nafarra osatzen duten kideak: Maialen Aizpun De la Peña (ahotsa eta gitarra), Nahia Garaikoetxea Salinas (ahotsa, gitarra eta trikitia), Itziar Olague Barberena (ahotsa eta biola) eta Olatz Jimenez Nadales (ahotsa eta teklatura). Abesti berri bat lantzen aritu dira azkenaldian eta Deban grabatu berri dute bideoklipa, urtarrilean, Igor Baroja eta Teresa Etxeberria dantzariekin batera. Grabazioa eta Kultur Elkartean emango duten kontzertua aitzakiazat hartuta, Nahia Garaikoetxearekin bildu da *Berriketan*, taldearen ibilbidea eta proiektuak ezagutu nahian.



Arg.: JOSU BARRADO

Noiz edo nolatan sortu zen taldea? Noiztik zabiltzate 'abian'?

2020ko urrian sortu zen taldea, pote batzuk hartzen ari ginela. Lehendik ere Maialen eta biok lagunak ginen eta noizbehinka batzen ginen abestiak gure kasa jotzeko. Nik betidanik neukan buruan taldetxo bat sortzeko ideia eta behin, Iruñean nengoela, Itziarrekin topo egin nuen. Biola jotzen zuela gogoratu, eta txantxa eta barre artean talde bat sortu behar genuela aipatzen

hasi ginen. Elkartzen hasi ginen eta konturatu orduko esku artean genuen gure lehenengo kontzertua.

Hirukote izatetik laukote izatera pasa zarete bidean, ezta?

Bai. Hiru ginen hasieran (Itziar, Maialen eta hirurok) eta, taldea zabaldu nahian, 2023ko apirilean Olatzekin kontaktuan jarri ginen, teklatura jotzen zuela jakin genuelako. Beldur pixka batekin jaso zuen berria, baina gure taldeko dinamika eta giroa ikusita, berehala



Abian taldeko kide Itziar Olague, Maialen Aizpun, Nahia Garaikoetxea eta Olatz Jimenez. NEREA LAYANA

animatu zen. Beraz, 2023ko maiatzean hiru izatetik lau izatera pasa ginen eta ekainean bertan laukote bezala grabatu genituen gure lehenengo abestiak.

Lehenbiziko proiektua al duzue hau elkarlanean?

Bai, beste testuinguru batzuetan topo egin dugun arren, talde gisa hau da gure lehenengo proiektua.

Zer nolako musikak edo kantek osatzen dute zuen errepertorioa? Bertsioak ez ezik, tartean abesti propioak ere badituzuela aipatu duzu, ezta?

Orokorrean gustuko ditugun talde euskaldun ezberdinen (Unidad Alavesa, Berri Txarrak, Katamalo...) bertsioak jotzen ditugu. Baina, bai, baditugu abesti propioak ere. 2022ko ekainean *Nostalgia* kaleratu genuen, eta 2023an *Udaberritzen* eta *Arimen oihartzuna*.

Euskaraz aritzen al zarete beti? Irizpide zehatzik baduzue hizkuntzari dagokionean?

Ez beti, baina gu euskaldunak izanda eta gure gustuak kontuan hartuta, gehienetan euskaraz aritzen gara. Egia esan, ez dugu hizkuntza irizpide zehatzik jarraitzen, baina abestiak sortzeko orduan errazagoa egiten zaigu euskaraz egitea. Hala ere, jotzen dugun lekuaren eta testuinguruaren arabera errepertorioa moldatzen dugu.

“Nafarroan dagoen musika eszena oso aberatsa da, bai talde kopuruagatik, bai sortutako estiloen eta generoen aniztasunagatik. Ez dut uste kasualitate hutsa denik”

Rotten XIII, Ibil Bedi, Skabidean, Tatxers... Azken bolada honetan Nafarroako hainbat taldek erreferentzialtasuna lortu dute musikagintzan. Indartsu sartu dira eszenan, euskaraz abesten gainera. Zer deritzozue? Nolabaiteko loraldi baten lekuko garela esan genezake? Edo kasualitate hutsa da?

Gaur egun Nafarroan dagoen musika eszena oso aberatsa da, bai talde kopuruagatik, bai sortutako estiloen eta generoen aniztasunagatik. Ez dut uste kasualitate hutsa denik. Taldeen estiloek eta hitzek helarazten duten mezuagatik ez ezik, arrakasta euskal musika gaur egungo garaietara egokitze eta gazteriaren beharrei erantzuteko gaitasunagatik ere lortu dela esango nuke. Horrek oso panorama polita sortu du musika talde nafarrei dagokienean.



Arg.: NEREALAYANA

“Momentuan suertatzen diren proiektuak gogotsu jasotzen ditugu eta ez diogu gure sormenari inolako mugarik jartzen”

Gustura sentitzen al zarete oholza gainean? Hainbat zuzeneko egin dituzue dagoeneko...

Egia esan, hori esperientziarekin lantzen den kontua dela esango nuke. Gutxinaka erosoago sentitzen bagara ere, oraindik urduritasuna nabarmena izaten dagugan. Hala ere, hasieratik animatu izan gara kontzertuak ematera, beldur horri aurre eginez. Taldearen dinamika lasaia izan arren, kontzertu nahikotxo eman ditugula esan dezakegu eta pozik gaude taldea bera hartzen ari den jarrerarekin eta egiten ari garen bidearekin.

Spotify, Instagram... presente zaudete sare sozialetan eta Interneten. Ezinbestekoa al da gaur egun?

Argi dago gaur egun teknologia berriak direla jendearengana iristeko biderik azkarrenak. Gizartean

ezagutzera emateko beharrezkoa da sare sozialetan aktibo egotea. Abian taldearentzat, nahiko erronka handia da sare sozialak behar bezala kudeatu ahal izatea; gure aktibotasuna taldearen erritmorra egokitzen da eta, beraz, kosta egiten zaigu gizarteak eskatzen duen berehalakotasun horretara iristea. Ez gara oso trebeak sareetan, eta ez diegu denbora gehiegi eskaintzen, baina gure abestiak sare eta plataforma digitaletan igota daude, bai. Egiten ditugun kontzertuen zein proiektu guztien berri ematen dugu Instagramen.

Nolakoak izan ziren 'Nostalgia', 'Udaberritzen' eta 'Arimen oihartzuna' kanten grabazio prozesuak? Pozik emaitzarekin?

Grabaketak luzeak izaten dira beti, kontuan hartu beharreko faktore asko izaten baitira. Hala ere, momentu politak izaten dira, denbora luzez landutakoak behingoz argia ikusten duelako. Grabazioetan, gainera, musika munduan adituak diren hainbat pertsona ezagutzeko aukera ere izan dugu. Gure kasuan, *Nostalgia* Ander Navarrokekin grabatu genuen eta gainontzeko abestiak grabatzen Musikki estudioan izan ginen, Adrian Vallejorekin. Gure eskerrik beroenak haientzat.



Igor Baroja eta Teresa Etxeberria dantzariekin Deban grabatutako bideokliparen irudiak. NAHIA GARAIKOETXEA

Eta zer duzue orain esku artean? Izan ere, jakin badakigu Deban ibili zaretela egunotan bideoklip berriren bat grabatzen... Zer moduz joan da?

Azkenaldian, hilabete amaieran kaleratuko den abesti berri bat lantzen aritu gara. Bideoklipa, aipatu duzun bezala, Deban grabatu genuen urte hasieran, Ekhiñe Aizkorberen eskutik. Egun bikainak pasa genituen elkarrekin eta emaitza lan polita da. Egindako lana Kultur Elkarteko kontzertuan aurkeztuko dugu.

Bideoklipa zer nolatan edo zergatik Deban? Arrazoi bereziren batengatik? Gainera, bertoko beste hainbat lagunek ere parte hartu dute proiektuan, ezta?

Naturari garrantzia eman nahi genion, eta itsasoa eta mendia lotzen dituen paisaia baten bila genbiltzan. Deba ezaguna genuen eta aukera ona iruditu zitzaigun abestiarekin kontatu nahi genuena erakutsi ahal izateko. Gainera, bertako lagun ditugun Igor Baroja eta Teresa Etxeberria dantzariak izanik, oso aukera ona eta polita iruditu zitzaigun haiekin lan egitea.

Urtarrilaren 26an berriro izango zarete Deban, Kultur Elkarteko agertokian kontzertua eskainiko baituzue. Zer dakarzue emanaldira?

Ohikoa den bezala, publikoak gure estilora eta gustuetara egokitutako errepertorioa entzuteko


“Bertako lagun ditugun Igor Baroja eta Teresa Etxeberria dantzariak izanik, oso aukera ona eta polita iruditu zitzaigun bideoklipen haiekin lan egitea”

aukera izango du bertan. Kontzertu lasaia eta goxoa izango da, formatu akustikoan, eta talde eta genero ezberdineko abestiekin eta gure kanta propioekin osatuko dugu emanaldia. Publikoarekiko gertutasuna transmititzen saiatzen gara beti eta, 2022ko udan Debako Gaztetxean egin genuen bezala, oraingoan Kultur Elkartean ere espero dugu horrela izatea.

Zer asmo ditu taldeak etorkizunera begira?

Ez diogu etorkizunari asko erreparatzen, unea bizi dugu. Momentuan suertatzen diren proiektuak gogotsu jasotzen ditugu eta ez diogu gure sormenari inolako mugarik jartzen. Pozik gaude lortzen ari garenarekin, eta kontzertuak ematen eta abesti berriak sortzen jarraitu nahi dugu. Abian gaude!

Berriz taularatuko dute 'Lotura basatiak' performancea



Joan den azaroan estreinatutako *Lotura basatiak* performancea berriro taularatuko dutela iragarri dute Debako emakume aktoreek. "GOAZ Antzerki Taldeak antolatutako Fokupean festibalaren baitan antzeztu genuen lehen aldiz. Sarrera guztiak saldu genituen eta, jende asko lana ikusteko gogoz gelditu zela ikusita, berriro antzezteka erabaki dugu". Aurrekoan joaterik izan ez zutenek, beraz, horretarako aukera izango dute urtarrilaren 27an (19:00etan) eta 28an (12:30ean). Agirre jauregiko Ispiluen gelan izango dira emanaldiak.

Azaldu dutenez, gainera, oraingoan berritasunekin dator antzezlan. Izan ere, taula gainean bost emakume izan ordez, sei

izango dira: Amaia Arotzena, Jule Urbietta, Maialen Rosa, Amaia Zinkunegi, Itzale Laka eta Irati Baroja. "Pili Litago kanpoan dago eta, haren ordez, Itzale Laka eta Amaia Zinkunegi batu zaizkigu proiektura. Obra, hortaz, birmoldatu egin behar izan dugu eta hainbat entsegu egin behar izan ditugu. Horregatik itxaron behar izan dugu urtarrilera arte obra berriro antzezteko".

Ama-alaben arteko harremanaren konplexutasuna lantzen duen lana ikusteko sarrerak Entradium atarian daude eskuragarri, bost euroren truke. "Hitza, irudia, musika eta mugimendua bateratuz, tonu ezberdinak -umorea, poesia, drama...- nahasten dituen obra kartartiko bat dakargu eszenatokira".

Agortzeaz daude Huntzaren azken kontzerturako sarrerak



2014an Bilboko kaleetan sortutako Huntza musika taldeak hamar urteren ostean etengo du bere ibilbidea. Otsailaren 3an, larunbatean, Bilbon bertan emango dute azken kontzertua.

Emanaldia 20:00etan hasiko da, baina taldekideak ez dira bakarrik igoko Miribilla Arenako oholtzara. Oraingoz aurreratu dutenaren arabera, bada, ondoko hauek izango dituzte lagun azken agurrean: Alaitz eta Maider, Niko Etxart, Tremenda Jauria, ETS, Maixa eta Ixiar, Nogen, Olatz Salvador, Stay Homas, Ebri Knight, Kristina eta Amaia, Xabi Solano, Iraitz Agirre, Jon Gurrutzaga eta Pablo Novoa.

Azkena balitz bezala kontzertuak bi ordu inguru iraungo du eta, agortzeaz dauden arren, oraindik ere sarrera gutxi batzuk geratzen direla gogorarazi dute. Internet bidez eskura daitezke, taldearen webgunean (huntza.eus).

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



A. Esnaola
P. Echeverria

Hortz klinika Clinica dental

Fermin Calbeton 19-3 ezka. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808

@pyadent

Mikel Sotok irabazi du XVIII. Tene Mujika beka



Arg.: JUANTXO EGAÑA

Mikel Soto idazle eta editore ohi iruindarraren proiektuak jasoko du Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean antolatutako Tene Mujika beka. Egileak Jon Miranderi eta haren obrari buruzko ikerketa proiektu bat garatzeko baliatuko du 6.000 euroko saria eta urtebeteko epea izango du liburua argitaratu ahal izateko.

Sotok dagoeneko izenburua ere jarri dio bere egitasmoari: *Mirande: Herriminez, ezin-minez*. Bertan, duela ia 100 urte jaio eta orain dela mende erdi zendutako idazle paristarra eta haren obra hobeto ezagutzeko giltza batzuk eskaini nahi ditu. Ikerketari buruz emandako azalpenetan, nabarmendu du Mirandek oraindik

ere "lilura eta jakin-mina pizten" jarraitzen duela, batik bat haren lanak irakurriz gero.

Dena dela, azpimarratu du, oro har, Miranderi erreparatzean soilik haren alderdi batzuei egiten zaiela so, eta ez denei. Hori horrela, egileak dio "beharadina" arakatu ez diren alderdi horietan sakontzen saiaturko dela. "Gizona eta obra hobeto ezagutu nahi baditugu, fenomeno horri buruz gehiago jakin behar dugu derrigor. Bide horretan, gustatuko litzaidake galduak edo argitaratu gabe dirauten Miranderen hainbat idatzi bilatzea. Eta, hori eginda, gustatuko litzaidake Miranderen bibliografia pixka bat osatzea, aurkikuntzakegin ditugun arren, urte batzuk daramatzagulako hori berrosatu gabe".

Inauteriak iragarritz, otsailaren 3an iritsiko dira Kaldereroak Debara



Debako Kaldereroak otsailaren 3an irtengo dira kalera, inauteriak iristear daudela iragartzera. 19:00etan hasita, beste behin ere, umorez beteriko pregoiak, kaldereroen ohiko abestiak eta erritmoz beteriko dantzak izango dira nagusi herrian.

Guztia behar bezala prestatzeko, entseguak ere antolatu ditu ohitura zaharra berreskuratzeko ahaleginetan ari den taldeak. Urtarrilaren 20an egin zuten lehenbiziko saioa eta urtarrilaren 27an izango da hurrengoa, Musika Eskolako dantza gelan. 11:00etan hasita, kalejiran abestuko dituzten kantak eta dantzatuko dituzten koreografiak ikasteko aukera egongo da. Azaldu dutenez, "heldu zein haurrentzat irekiak" izango dira entseguak, baita kalejira bera ere. Interesa duten herritar guztiei desfilean parte hartzeko gonbita egin diete.

sasoiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Podologia
- * Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiako@hotmail.com

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Urtarrila / Otsaila

URT. 26 (OSTIRALA)

KONTZERTUA

20:00 KulturEkin: Abian. Kultur Elkarte.

URT. 27 (LARUNBATA)

KALDEREROEN ENTSEGUA

11:00 Musika Eskola (dantza gela).

ANTZERKIA

19:00 'Lotura basatiak' (GOAZ Antzerki Taldea). Ispiluen gela.

URT. 28 (IGANDEA)

MAGIC TXAPELKETA

10:00 Kultur Elkarteko liburutegia.

ANTZERKIA

12:30 'Lotura basatiak' (GOAZ Antzerki Taldea). Ispiluen gela.

ZINEMA

16:30 'Abentura historiaurrean'. Zubi Guraso Elkartearen eskutik. Kultur Elkarte.



19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

URT. 31 (ASTEAZKENA)

IRAKURKETA KLUBA

19:00 'Gabriel Aresti biografikoa' (Adur), eta 'Harri Herri' (Gabriel Aresti). Ostolaza Udal Liburutegia.

OTS. 3 (LARUNBATA)

KALDEREROAK

19:00 Kalejira Agirre jauregitik abiatuta.



OTS. 4 (IGANDEA)

EKIN BERDEA

11:00 'Casacampo zain dezagun eguna', Debanaturaren ekimenez. Casacampo.

IPUIN KONTAKETA

17:30 Debako Kontalarien eskutik. Ispiluen gela.

ZINEMA

19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

OTS. 5 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN

MOBILIZAZIOA
12:00 Foruen Plaza.

OTS. 8 (OSTEGUNA)

DIANA

08:30 Musika Eskolako ikasleak. Herriko kaleetan.

OTS. 9-13

INAUTERIAK

*Egitarau berezia antolatuko da Deban eta Itziarren.



OTS. 9 (OSTIRALA)

ODOL ATERATZEA

16:30-20:30 Aurrez txanda eskatzea beharrezkoa da (612 40 21 03 telefonora deituta). Luzaro ikastetxea.

KALEJIRA

17:00 Musika Eskolako ikasleak. Agirre jauregitik.

OTS. 10 (LARUNBATA)

KALEJIRA

10:30 Txistulariak. Kalez kale.

KONTZERTUA

18:30 Andoni Oilokiegi. Arrano Elkarte.

22:00 Chuleria Joder + Ez Ez Ez + El Volquete. Gaztetxea.

OTS. 17 (LARUNBATA)

HITZALDIA

12:00 'Euskararen egoera gaur' (Iñaki Lurrebaso). Kultur Elkarte.

EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA

17:00 Debako kanporaketa. Arrano Elkarte.

OTS. 19 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

IKASTAROAK

Geoparkean gidari izateko trebakuntza ikastaroa
Izen-ematea (doan) urtarrilaren 30era arte zabalik. Informazio gehiago: geoparkea.eus.

IRTEERA

Otsailak 20 (asteartea)
ABAO Bilbao Opera: 'Rigoletto'
Izen-ematea otsailaren 15era arte zabalik. Informazioa: turismo bulegoan.

BEGIRADAK 2024

Literatur errezitaldi eta irudien emanaldi herrikoian parte hartzeko deialdia
Izen-ematea otsailaren 9ra arte zabalik (688 66 37 44 / euskara@deba.eus).

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

BURGEO ZUAZO Otsailak 9, 10, 11, 19, 20, 21, 22.

ZALDUEGI Urtarrilak 26, 27, 28 eta otsailak 5, 6, 7, 8.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01
BURGEO ZUAZO 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:
ZALDUEGI
Urtarrilak 27 / Otsailak 17

BURGEO ZUAZO
Otsailak 3 eta 10

Jarrai gaitzazu!

berriketan.eus

Zuhatza Euskara Elkarte



HURRENGO HITZORDUAK



berriketan.eus/agenda

IRAGARRI ZURE EKIMENA

Ekintzaren bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan otsailaren 16a baino lehen. berriketan@zuhatza.com
943 19 13 83

Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkarte	943 19 13 83	Haur Eskola	943 19 20 81
Debako Udala	943 19 28 40	Luzaro (Ifar kalea, HH)	943 89 91 55
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	Luzaro (Itziarko bidea, LH)	943 89 91 54
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Luzaro (Itziar, HH)	943 89 93 27
Bake epaitegia	943 19 23 53	Luzaro (Itziar, LH)	943 19 93 06
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Mendata BHI	943 89 92 65
Turismo Bulegoa	943 19 24 52	Deba Musikal	943 19 20 16
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Helduen Heziketa Iraunkorra	943 19 21 76
Kiroldegia	943 19 22 62	Debabe Euskaltegia	943 19 22 36
Ertzaintza (Eibar)	943 53 17 00	KZgunea	943 02 36 29
Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24	Gaztelekua	943 19 27 62
Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42	Lanbide	945 16 06 00
Itziarko Botikina	687 75 67 21	Correos	943 19 17 99
Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01	Mankomunitatea	943 70 07 99
Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90	Ur Zerbitzuak	943 60 80 02
Gurutze Gorria	943 19 10 32	Debegesa	943 82 01 10
DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22	Euskotren	944 33 33 33
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Lurraldebus	900 30 03 40
Eibarko Ospitalea	943 44 90 00	Debako Parrokia	943 19 14 97
Donostiako Ospitalea	943 00 70 00	Itziarko Parrokia	943 19 93 04



Gestilan
asesores aholkulariak

DEBA | Bulego berria
Maxpe kalea, 7 behea ☎ 943 19 21 06

EIBAR | Zezenbide, 4 behea ☎ 943 20 70 02

📍 asesoriagestilan 🌐 gestilan.es ✉ gestilan@gestilan.es



Uzuri
optika audio



**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

RPS: 1837/2



Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa
info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

SUDOKUAK

Zailtasuna: **Erraza**

4		9	1		5			6
		1		7	4	9	8	2
3					2			1
9			5	3		6	2	
	5				9		1	
		3	8	2	7			
8	3	2	4		6	1	7	5
				1	8			9
						2		

Zailtasuna: **Ertaina**


		8	7				5		
9	1				6			2	
				1			3	8	
4	7	9							1
			2						5
		3	8			9	4		
			5			6		7	8
7					5				
	9		4	7				5	

1	9	6	7	5	3	2	4	8
7	4	5	2	1	8	3	6	9
8	3	2	4	9	6	1	7	5
6	1	3	8	2	7	5	9	4
2	5	7	6	4	9	8	1	3
9	8	4	5	3	1	6	2	7
3	7	8	9	6	2	4	5	1
5	6	1	3	7	4	9	8	2
4	2	9	1	8	5	7	3	6

2	9	5	6	3	7	1	4	8
7	2	6	8	5	1	9	4	3
3	4	5	6	2	7	1	8	
5	3	8	2	1	9	4	6	7
1	6	2	7	3	4	8	9	5
4	7	9	6	8	5	2	3	1
2	5	4	1	9	7	3	8	6
9	1	3	5	6	8	7	2	4
6	8	7	3	4	2	5	1	9

HIZKI ZOPA: DEBA ETA INGURUKO KOBAZULOAK

Z	T	U	P	I	K	U	B	N	M	A	U
T	L	A	T	S	U	R	R	E	G	I	N
I	L	A	G	A	I	T	R	U	X	Z	A
A	A	L	I	R	U	R	O	I	N	K	O
E	N	S	S	N	B	O	G	L	K	O	N
L	G	E	U	M	I	S	V	E	Z	L	K
I	A	V	L	U	R	A	N	X	U	T	Z
A	T	L	U	K	U	F	K	A	I	X	A
R	X	B	P	X	Z	A	A	E	U	O	D
P	O	A	I	T	T	I	M	R	E	M	
A	R	B	I	L	I	H	O	E	G	Y	D
D	H	U	I	M	A	I	O	N	P	E	



AITZURI | AIXA | AIZKOLTZO
 ARBIL | EKAIN | ERMITTIA
 IRUROIN | KIPUTZ | LANGATXO
 LATSURREGI | PRAILEAITZ | URTIAGA

Mikel
ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK

Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774
M. 699 975 206
info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH
SQUARE

SCHOOL
OF ENGLISH

Udako egonaldiak
atzerrian familia
eta erresidentzietan

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k
kutxabank

LK
Home


Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmkhome@gmail.com

Berriketan .eus

parte hartu
parte izan

Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

LIGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Ute guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA

ENDAÑETA
muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziaroko gaina
T.: 943 19 91 00
F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

albisteak

iritziak

agenda

zozketak

komunitatea

argazki-galeriak

eguraldia

Berriketan .eus

webgune berritua

Debako eta Itziarko
informazioa,
euskaraz

